11.zk
2002

Nafarroako eskola Kontseilua Aldizkari Berri-Emailea

Editoriala

HEZITZAILEAK XXI. MENDEKO GIZARTEAN

Editorial honetan, Nafarroako Eskola Kontseiluak Autonomietako eta Estatuko Eskola Kontseiluetako XIII. Topaketa Nazionaletan aurkezturiko txosteneko 3. zatiaren laburpena egin dugu; topaketa horiek Oviedon izango dira, 2002ko maiatzean.

Txostenaren testu osoa Eskola Kontseilu honetako web orrian ikus daiteke:
www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra.

Nafarroako Eskola Kontseiluak hezitzaileen hasierako heziketari eta heziketa jarraituari buruz egindako hobekuntza proposamenak.

a) Etorkizuneko irakasleen hasierako eta unibertsitateko heziketaren berrikuspen sakona egitea, errealitatearekiko egokitzapenik eza jasanezina bihurtuko delakoan.
Horri dagokionez, ekimen guztiz bideragarritzat, unibertsitateko ikasketa planetan (irakaskuntzan jardun nahi duten irakasleen eta lizentziatuen nahiz injineruen ikasketa planetan) honako alderdi hauek jasotzeko eskabidea egin nahi dugu:
• Hezi nahi den irakaslearen profila, helburuak eta xedeak.
• Arlo didaktikoak eta psikopedagogikoak.

b) Irakaskuntzan jardun nahi duten irakasleen eta lizentziatuen edo injineruen ikasketa planak aldatzea; horrela, aukerazko ikasgaiak nahiz egituratze askekoak erabiliz, horiek guztiek beharrezko gaitasuna lortuko dute, irakaskuntzaren derrigorrezko mailetan gutxienez bi ikasgai emateko; horrek ikasle talde jakinarekin diharduen irakasle taldea murrizteko eta hezkuntza sistema hobetzen laguntzeko aukera emango du. Horrenbestez, Hezkuntza Administrazioei eskabidea egin nahi diegu, irakasleentzat ateratzen diren lanpostu berrietan ezaugarri hori kontuan har dezaten, eta erakunde pribatuei ere eskabidea egin nahi diegu, irakasleak kontratatzean profil hori aintzat har dezaten.
Bost urtetan, gutxienez, unibertsitate osteko ikasturteak eman behar dira, antzinako titulatuentzat edo aldarteko langileentzat, baldin eta gaitasun bikoitz hori ez badute, gaitasuna zentzuzko epean lor dezaten.
Testuinguru horretan, Irakasle Eskolako oraingo diplomatuak lizentziaturara igarotzea justifikatuko da.

c) Aurreko proposamenarekin batera, irakasleen heziketako ikerketa pedagogikoan ere beharrezko lankidetza eman behar da, ikastetxeetan, unibertsitateetan eta hezkuntza administrazioetan; horrela, ikerketa planak eta edukiak gaurkotuta eta egokituta egongo dira, hezkuntza sistemaren egiturari eta beharrizanei dagokienez.

d) Irakasleen heziketa iraunkorrari buruzko eztabaida egitea, autonomia erkidego guztietan, bertan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa koordinatzailea izan eta egon daitezkeen erantzun guztien bitartekaritza egin dezake.
Heziketa iraunkorraren eskaintza egin behar da, ikuspegi orokorretik; horrek erantzuna eman beharko die irakaskuntzaren ohiko jarduera oztopatzen duten arazo orokor guztiei:
• Eduki eta alderdi pedagogikoen ezagupena hobetzen duen gaurkotze zientifikoa eta didaktikoa.
• Ikasgelako bizikidetza arazoak saihesteko, inmigranteen arretarako, elbarrien integraziorako eta abarrerako eskuhartze estrategiak.
• Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena.
• Hizkuntzen hobekuntza, batez ere adituentzat.
• Ikastetxeen antolaketaren eta kudeaketaren ezaguera, horien ibilera egokirako.
• Talde laneko, partaidetzako, eztabaiden zuzendaritzako eta abarreko heziketa teknikak.
• Tutoretzako estrategiak eta teknikak.

e) Ikastetxeetako heziketa garatzea, banakako heziketa baztertu barik.

Editoriala

Ikastetxeetako heziketa lagungarria izan behar da, gutxieneko kohesioa duten irakasle taldedun ikastetxeak egituratzeko; horrela, besteak beste, aurrera egin daiteke lan proiektuen erabileran, antolaketa eta curriculum mailako autonomia edukitzeko.
Autonomi maila onargarriak eta heziketaren integrazioa bateratzea (ikastetxeetan eta, neurri batean edo guztiz, ikastetxeko ordutegiaren barruan) tresna oso eraginkorra izan daiteke kalitatea hobetzeko.

f) Metodo eta trebetasun berriak sartzea.
Irakaskuntza ez da kontzeptuen ikaskuntza soilik. Irakasleak etengabe gaurkotu behar ditu irakaskuntza metodoak; gainera, horiek kontuan hartu behar ditu, helburuak eta erabili beharreko ebaluazio sistemak ezartzeko orduan.
Trebetasun horien artean, honako hauek dira garrantzitsuenak:
• Elkarrizketaren eta partaidetzaren garapena.
Agintetik azalpenera eta negoziaziora igaro gara. Horrenbestez, irakasleak ez du ahaztu behar ikasleak inplikazio handiagoa izango duela irakaskuntza prozesuan, baldin eta ulertzen badu arauak eta hezkuntza giro egokia ezinbesteko baldintzak direla, ikasgelaren eta ikastetxearen ibilera egokirako.
• Taldean lan egiteko beharrizana onartzea.
Irakaslea ikaslearekiko banakako harremanetan oinarritu da beti. Gaur egun, ikasle guztiekiko harremana eduki behar duela ulertu behar du, ikasle bakoitzarekiko harreman pertsonalean izandako lorpenak baztertu barik. Proiektuak egin, metodoak eztabaidatu, erabakiak hartu eta arazoak konpondu behar dira, baina denen artean. Denen artean harturiko erabakiek aurrera ateratzeko aukera handiagoa dute.

g) Hezkuntzaren lanbide eta gizarte onarpena berreskuratzea.
Gizarteak uste du bere gaitz guztien sendagaia irakaskuntza dela. Esfortzua baloratzen, bere irizpideak edukitzen, errespetuan bizitzen eta prestakuntza duina lortzen ikasi duen pertsona bat harro egongo da lanbide eta gizarte mailan.
Interesik eza, lanik eza, diziplinarik eza eta biolentzia sarritan erantzukizunak baztertzearen eta gizarte nahiz famili bazterkeriaren eraginezkoak izaten dira.
Gizarteak irakasleen lana eta horien lan baldintzak ikusi behar ditu. Irakasleak etengabeko onarpena eta lankidetza behar du eskola-familia-administraziotik.

h) Administrazioaren arreta sustatzea.
Profesional guztiek zaharkiturik gelditzeko joera dute, baldin eta sustatzeko aukerarik ikusten ez badute. B mailatik A mailara igarotzea, katedraduna izatea, erantzukizun handiko karguak edukitzea, Unibertsitatean sartzea, etab. etengabeko heziketarako eta gaurkotzeko arrazoiak dira, bai sektore publikoan eta bai kontzertatuan.
Amaitzeko, gogora ekarri behar da Administrazioek eta sindikatu nagusietariko batzuek "Nafarroako Foru Erkidegoko irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna" deritzona sinatu zutela, 2001eko maiatzaren 31n. "Irakasleen heziketa iraunkorraren erantzukizuna hiru sektorek dute: Administrazioak, ikastetxeek eta irakasleek eurek, LOGSEren 56.2 artikuluan ezarritakoaren arabera: 'heziketa iraunkorra irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, baita hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen erantzukizuna ere'".
Administrazioak kalitateko irakaskuntzaren faktoreak eta baldintzak bermatu behar ditu; gainera, emaitzak eta horiek lortzeko modua ere ebaluatu behar du. Horretarako, sektore publikoko eta kontzertatuko irakasleek etengabeko heziketa behar dute.

i) Familien heziketari dagokionez, "Gurasoen eskolen" garapena errazteko erakunde publikoen edo pribatuen sorrera proposatzen da.

Consejo Escolar de Navarra
Nafarroako Eskola Kontseilua

Ikasgela gaur

CALASANZ IKASTETXEA (ESKOLAPIOAK)

Denborarik gabeko hezkuntza

Hezkuntzaren arabera hitz egitea eta jardutea norbaiti hezten, heltzen eta, azken batean, pertsona hobea bihurtzen laguntzeko aukera guztiak erabiltzea da. Horrenbestez, heziketak ez dauka mugarik, denborarik edo atsedenaldirik.
Gure seme-alaben hezkuntza lehenengo eta azken klaseko txirrinarekin hasten eta amaitzen dela pentsatzea hutsegite handia da.
Beste denbora bat dago, beste une batzuk, ez bakarrik eskolako uneak, ez bakarrik klasekoak (ikasleek diotenez), baina horiek ere oso garrantzitsuak dira.
Bestela, zelan jakin dezakete ikasleek Iñakiren zaletasuna, Nerearen trebetasun ezkutua, Luisek txisteak kontatzeko duen abilezia, Anak bere buruari buruz mintzatzean duen zintzotasuna, Anderren irribarrea, Evaren lotsa, Amaiaren ulergarritasuna, Jokinen tolerantzia...?
..... Eta ikasleen arteko harremanen mundua euren jakituria eta esperientzi lantegia bihurtzen duten beste hainbat eta hainbat gauza.

Gure neska-mutilek topaketa horiek sustatzen dituzten lekuak eta jarduerak behar dituzte. Ondo planifikaturiko jarduerak, gaitasun handiko eta hezkuntza mailako konpromisoko pertsonek zuzendutakoak, gure ikasleekin egoteko moduko inguru **jatorra** eskaintzeko eta bultzatzeko. Gure Ikastetxetik, hezkuntza mailako aukera handi honi (gure neska-mutilentzat hain garrantzitsua den denbora horretan) izen desberdinak eman dizkiogu hezkuntza etapa bakoitzean. Jarduera horietariko batzuk eskolatik kanpokoak dira, beste batzuk osagarriak eta beste zenbait ez dira ez batekoen eta ez bestekoen artekoak. Halaber, ikasle izandakoei eta gurasoei zuzendutako jarduerak ere badira.
Nolanahi ere, horiek guztiak denbora horretakoak dira, harreman pertsonalen bidez **ikasteko** eta **izateko** une horren barrukoak.

Interesgarrienak azaldu nahi dizkizuet.

Ikastetxeetan era guztietako kirol jarduerak eskaintzen dira, baina horietariko bat aipatu nahi nuke: **Kirol anitza**. Haur Hezkuntzako 3. mailako ikasleei eta Lehen Hezkuntzako 1. Zikloko ikasleei zuzenduta dago (5, 6 eta 7 urte). Jardueraren helburua kirola sustatzea da, baina lehiatzeko, irabazteko edo lehenen gelditzeko inolako asmorik gabe. Gozatzeko, jolasteko, harremanak izateko eta ikasteko bakarrik. Jarduera jolasean oinarriturik dago. Haurrek espazioan mugitzen, mugimenduak koordinatzen, baloiak zein pilotak erabiltzen eta irudimena garatzen (istorioak birsortuta eta antzeztuta) ikasten dute; bide batez, zenbait kirolen oinarrizko nozioak ikasten dituzte gero kirol jakinen bat egiten hasi ahal izateko. Jardueraren partehartzeak eta poztasun mailak erraz gainditu ditu aurreikuspen guztiak.

Beste jarduera batzuk ere badaude, ikastetxeetan garrantzi handia dutenak, eta horiek Astialdiaren barruan sartzen dira. Astialdiko zenbait talde daude, Garaiz deritzon gazteen elkarte baten barruan bilduta. Horren arduradunak irakasleak dira, baita ikasle izandako monitoreak edo Batxilergoko ikasleak ere. Taldeak honako hauek dira:

Calasanz ikastetxea (Eskolapioak)

- **Mikel Gurea** deritzen astialdiko taldeak: Lehen Hezkuntzako 5. nahiz 6. mailako eta DBHko 1. zein 2. mailako ikasleentzat. Astialdiko jarduerak egiten dira, jolasak, irteerak, kanpaldiak...; horren helburua balioen eta fedearen hezkuntza sustatzea da, ikastetxean jasotzen dutenaren heziketa osagarritzat.
- **Bidean** deritzen astialdiko taldeak: DBHko 3. nahiz 4. mailako eta Batxilergoko 1. zein 2. mailako ikasleentzat. Ikasleen garapen pertsonalerako eta gizarte garapenerako jarduerak egiten dira. Era berean, fedea eta kristauen bizitza ere sakontzen dira, adinen araberako gai interesgarriak jorratuz.
- **Lurberri**: gehienbat ikastetxeko ikasle izandako helduek osaturiko taldeak; horiek ikastetxearekiko loturari eustea erabaki dute eta euren fedea taldean bizi dute. Honako hauen lankidetza duten proiektuetan daude:
  - Iruñeko alde zaharreko parrokiak.
  - Aldezar (Iruñeko alde zaharreko astialdiko taldeak).
  - Brasileko eta Boliviako proiektua: Brasilen Lurberriko 4 kide daude, haurrei laguntzeko zentro bateko umeekin lanean, eta Bolivian hiru kide daude, haurren barnetegi batean lanean. Ikastetxea proiektu horietan parte hartzen ari da eta jarduerak antolatzen dira, horiei laguntzeko dirua biltzeko.
- Astialdiko eskola bat ere badago: **Lurberri Eskola**. Astialdiko Monitore eta Zuzendarientzat, haur eta gazteentzat. Kirolaren eta Gazteriaren Nafarroako Institutuak onarturiko eskola. Bertan, zenbait ikastaro ematen dira.
- Halaber, GGKE bat ere badago (Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea), ikastetxearen barruan, **Setem**. Hegoaldeko herrien egoerari buruzko hezkuntzan eta sentsibilizazioan espezializaturik dago. Lankidetza proiektu askotan laguntza ematen du, Latinoamerikan.

Jarduera osagarrien arteko bi oso garrantzitsuak dira: **Bizikidetzak**: urtero ikasturte bakoitzarekin egiten den egun biko edo hiruko irteera, DBHtik Batxilergoko 1. mailaraino; irteera horretan heldutasun pertsonalari, gainontzekoekiko harremanei, bizitza kristauari eta balioei loturi-

Ikasgela gaur

ko alderdiak lantzen dira, eta hori guztia, berriz, egunero-ko klaseko ikasgaietan jasota dago. Beste jarduera **"egian"** izenekoek osatzen dute (diziplina arteko esperientzia globala, ikasgela naturalean). Ikasturte amaierako irteera da. Bigarren Hezkuntza osoan egiten da. Bertan, ondo igarotzeaz eta pozik ibiltzeaz gain, ikasleek ikasturtean ikasitakoa gauzatu behar dute. Toki horretan bizikidetzari buruzko klaseak daude eta, esperientzia horretatik, ikasleek gero ikasgela osoak sarituko duen lan bat egin behar dute. Irteera horietarako, Eskolapioek Nafarroan edo inguruko probintzietan dituzten aterpetxeak ditugu. Ikasle nagusiekin urrunago joaten gara: Madril, Bartzelona, Paris.

Familientzat ere zenbait jarduera eskaintzen dira. Garrantzitsuenetariko bat aipatuko dugu. **Gurasoen Eskola**. Bost talde ari dira lanean. Horien arduradunak ikastetxeko irakasleak dira. Seme-alaben hezkuntzari buruzko gaiak jorratzen dira. Zenbait hizlari egoten dira, horietariko batzuk ikastetxekoak bertakoak. Bi talde daude gurasoentzat, batez ere Haur Hezkuntzako haurrak dituztenentzat, beste bat Lehen Hezkuntzarako, beste bat Bigarren Hezkuntzarako eta azken talde bat hazkunde pertsonaleko dinamiketarako nahiz gaietarako, hori ere gurasoentzat. Partehartzea eta poztasun maila handiak dira.
Gurasoen tailerrak daude, baita kanpainak eta ekintzak ere, eta horietan familiek, ikasleek eta ikastetxeak batera hartzen dute parte.

Hezkuntza ez da liburuetara mugatzen, ez curriculumera, ez denboretara. Gure ikasleek gauza asko ikasten dituzte une honetan, gu bertan egon nahiz ez. Nolabait ere, hori zaintzen jakin behar dugu.
Eskerrak eman nahi dizkiet halako ekintzak ahalbidetzen dituzten arduradunei eta monitoreei, eskainitako konpromiso, esfortzu eta denborarengatik. Jakin zuen lana oso garrantzitsua dela.

Antonio Yániz
Calasanz Ikastetxeko Zuzendaria

SANTA CATALINA LABOURÉ IKASTETXEA

Kaixo. Hasi baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizuet gugan pentsatzeagatik, Nafarroako Eskola Kontseiluko aldizkariaren zenbaki honetan parte hartzeko. Lerro hauek geure burua apur bat hobeto ezagutarazteko baliozkoak izango direlakoan nago.

"KATALINAK"

Santa Catalina Labouré ikastetxea orain dagoen lekuan sortu zen, 1948an. Iruñeko kanpoaldean zegoen; zelaiz inguraturik, orain La Milagrosa eta lehen "Mochuelo" auzoa izandakoaren ondoan. Garai hartan herrietatik hiriburura zetozen neskei arreta emateko sortu zen. Denbora luzea igaro da eta gauzak ere asko aldatu dira.

Gaur egun, 400 ikasle inguru daude, Haur Eskolan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn, Gizarte Zerbitzuen Arloan, Bulegoen Arloan eta Administrazio Arloan.

Erakunde Titularra San Vicente de Paúl deritzoneko Karitatearen Alabak dira. Horrenbestez, Hezkuntza kristauko Komunitatea osatzen dugu, eta honako honetara garamatzan espiritu horretan murgilduta gaude...
Bakuntasuna, harrera, errespetua, konfiantza, alaitasuna, zolitasuna, errealismoa, zintzotasuna eta emankortasuna dakarren hezkuntza ingurura.
Ikasleen integrazioa lortu nahi duen hezkuntzaren ulermenera, baita jakintzaren baloraziora ere, gainontzekoei zerbitzu hobea eman ahal izateko.
Ikasleen eta euren gurasoen artean egotera (Ikastetxeko irakasleak eta gainerako langileak), horiekiko harreman pertsonala, hurbila, bizikidetzakoa eta adiskidetasunekoa edukitzeko.
Azken batean, ildo horri jarraituz, hiritar zintzoak eta kristau onak sortu nahi ditugu, Ikastetxetik irten ondoren ere horrelakoak izaten jarrai dezaten.

INSTALAZIOAK

Kanpoko aldaketak egiten ari gara eta hori zuotariko askok ere ikusten duzue, baina barruko aldaketak ere egiten ditugu. Gure inguruan egiten ari diren obren ondorioz, ezerosotasuna, modernotasuna eta aire berriak ez ezik, gure patioaren behin betiko ibxuraketa ere ekarriko dute, baita Ikastetxerako sarbideen egitura ere. Laster (horixe nahi dugu, behintzat) gure patioa berritu ahal izango dugu, hori ahal izanez gero hobeto aprobetxatzeko.

Barruan era aldaketak egiten ari gara. Oraintsu harrera eta administrazio eremu berria inauguratu genuen (jaia, bulegoak, harrera gelak, batzargelak, ...); berrikuntza horiei esker, zerbitzu eta arreta hobea eskainiko diogu Hezkuntza Komunitate osoari, gure lanaren kalitatea hobetzeko helburuaren barruan.

ESKOLAKO ETA ESKOLATIK KANPOKO PROIEKTUAK

Gure Zentroan Zentro Berezirako Trantsizio Ikasgela mar-

Santa Catalina Labouré Ikastetxea

Ikasgela gaur

txan daukagu, eta bertan hezkuntza bereziko Lehen Hezkuntzako hiru ikasle daude. Horrek ere agerian jartzen du gure asmo integratzailea. Ikasle horiek euren ikasturteetan daude eta jarduera ahalik eta gehien egiten dute; halaber, arreta espezializatua jasotzen dute, arazorik gehieneko alderdietan. Arreta pertsonalizatu eta espezializatu hori Ikastetxeko ikasle guztietara hedatzen da.

Gurasoen Elkarteak eskolatik kanpoko jarduerak egiten ditu urtero: Judo, Antzerkia, Euskara, Gitarra, Futbitoa eta Aerobica (orain artekoak).

Era berean, eskolako jarduerak ere programatzen dira: naturako bizikidetzak, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, hiritik egindako bisitaldiak, eskolako kontzertuak, planetarioa, aste zuria (eskia), aste berdea (naturako kirolak), zuhaitz bat babestu, inguruko enpresa nahiz institutuetarako bisitaldiak, arte erakusketak, museoak, papera birziklatzeko kanpainarekiko lankidetza oso aktiboa, idazlan lehiaketak, olinpiada matematikoa, Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialarekiko lankidetza (ingelesa eta frantsesa)... Hori guztia heziketa akademikoa indartzeko eta heziketa hori pertsonaren heziketa integral bihurtzeko egiten dugu.

Gauza asko esan gabe gelditu dira. Halaber, agerian jarri nahi dugu interes handia daukagula gure ikasleen nortasuna finkatzeko, nortasun irekia, emankorra, arduratsua eta zintzoa, baina euren inguruan lana, bakea eta alaitasuna garatzen eta bizitzen jakinda.

Zeuen esku gaude, nahi duzuen edozertarako.

Eskerrik asko,

José Miguel Gallego
Zuzendari Pedagogikoa

DONAPEA BHI ETA EUROPAKO "INTEGRAZIOA".

Institutuko bizitzaren hiru eremutan egindakoari buruzko hausnarketak aukera ematen digu azken urteotan ibilitako bidea laburbilduta ikusteko, praktikan Europara gehiago hurbiltzeko asmoz.

I - HOBEKUNTZA- KALITATEA

Hobekuntza-Kalitatearen ibilbidean aurrerapausoak eman dira, ikastetxeko oinarrizko prozesuak diseinatuta, lehenengo eta behin ISO 9000 deritzoneko arauen sistemarekin eta orain ezarritako gauza guztiak apurka-apurka norberaren ebaluaziora egokituta, Europako kalitate sistemaren bitartez (EFQM); hori baliozkoa da datuetan oinarrituz erabaki estrategikoak hartzeko.
Gure WEB, orrialdean, http://www.pnte.cfnavarra.es/ies.donapea/, gure hobekuntza sistema ikusten da, baita diseinatu ditugun prozesua, planteaturiko helburuak eta lortzen ari garen adierazleak ere; halaber, etengabeko hobekuntza ahalbidetzeko edo gutxienez orain arteko kalitate mailei eusteko (horiek egokiak izanez gero) diseinaturiko tresnetariko batzuk ere bertan agertzen dira.

Laster, eskola komunitatearen partaidetzarekin, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua berriro zehaztuta edukiko dugu, bertan, argi eta garbi zehazten dira gure Eginkizuna, Ikuspegia, gure garapenerako Balioak, epe ertainerako lehentasunezko Estrategiak, Donapea BHI ikastetxean egiten duguna, dauzkagun era guztietako baliabideak eta gure antolaketa.
Hori guztia erabiliz, Urteroko Planak egin eta finkatuko ditugu, 2001/2002 ikasturterako diseinaturikoaren arabera (hori ere gure WEB orrian dago ikusgai); gainera, horiek sakon ebaluatu eta hobekuntzarako arlo berriak aurkituko ditugu.
Donapea BHI ikastetxea LHko heziketa eskaintza handiena duen ikastetxea da, eta **Europar Batasuneko Gizarte Fondoaren baterako finantziazioa** duten Nafarroako bost ikastetxe publikoetariko bat da, behintzat 2006. urtera arte. Horrek hobetzeko ahaleginak egitera garamatza; izan ere, emaitza oso zentzuzkoekin gainditu ditugu Europar Batasuneko bi auditoria, bai ekonomikoa eta bai gure ikasleen Lan Zentroetako heziketari buruzkoa.
Oraintsu hirugarrena eduki dugu, honako honi buruzkoa: programazioak, baliabide didaktiko berritzaileak nahiz teknologia berrien erabilera heziketan, irakasleak laguntzeko edota ordezteko prozedurak eta ikasleen bertaratzea, baina oraindik ez dakigu horren emaitzarik.
Ikasturte honetan ikastetxean 442 ikasle berri ditugu (Nafarroa osoan 82 ikastetxe) eta horiek leku askotakoak dira; horrenbestez, arreta berezia jartzen diogu harrera prozesuari eta orientazioari edo tutoretzari, ikasle guztien integrazioa azkarra eta behar bezalakoa izateko.
Gainera, programazio prozesuak, ikasgelako jarduerak, ebaluazioa eta Lan Zentroetako heziketa ikastetxeko **hobekuntza taldeek** diseinatu dituzte, eta horiek azpimarratu edo hobetu beharreko arloak zehazten dituzte.
Nafarroako Institutu Publikoen Kalitate Sarearen barruan gaude **(KADINET)**, eta hori ere elementu garrantzitsua izan da gure esperientziak eurekin komentatzeko, praktikarik onenak ezagutzeko eta gure ikastetxeetan etengabeko hobekuntzaren ezarkuntza bultzatzen duten taldeak sortzeko, lankidetzaren bitartez.

II - ATZERRIAN EGINDAKO PRAKTIKAK "LEONARDO" PROGRAMAREKIN

Gonzalo Garcia Echarrenek kontatutakoa (Donapea BHIko produktu Elektronikoen Goi Zikloko ikaslea); 2001/2002 ikasturtean praktikak egin ditu Europar Batasuneko enpresetan; hain zuzen ere, Gonzalok hiru hilabete eman ditu Erresuma Batuan eta, bertan, praktikak egin ditu bere espezialitateko enpresa batean, Gotesko Langollen herrian.

"Bidai eta bizitzako esperientzia guztietan gertatzen den bezala, alde ona eta txarra izan zuen. Baina bi aldeotatik ikasi egiten da. Eta, batzuetan, alde txarra onuragarriagoa da ikasteko alde ona baino.
Bertan nengoelarik, jendeak ingelesei buruz komentatzen zituen estereotipoetariko asko gezurrezkoak zirela ulertu nuen. Era berean, ingeles bati ere aditzera eman nion

Ikasgela gaur

espainolok ez garela alferrak eta ez gaudela egun osoan zezenetan, zartzueletan edo paellan pentsatzen. Horrek guztiak are gehiago ireki zuen nire burua; horrela, errazago ulertzen nituen bertako ohiturak eta horietara egokitzeko aukera nuen, ni neu izateari utzi gabe. Nire ingelesa hobetu ahala, azentua ere hobetu egin nuen, nire ahotsaren tonua leundu eta konnotazio adeitsuagoa lortu nuen. Hesi hori gainditu ondoren, errazago egiten nuen hitz eta, horrela, jakina, pertsona gehiago ezagutzen nituen. Izan ere, pertsona asko ezagutu ditut, frantziarrak, txekoslovakiarrak eta thailandiarrak.

Zalantzarik gabe, pertsonatzat aberastu egin nahiz. Esan daiteke hori osagarria izan zela, baina aldaketa eragin zuen benetako gauza alde gogorra izan zen. Bertan bakarrik egotea, zure herrikideek eurek ere lepoa eman dizutela ikusita (nahiz eta denek hori ez egin). Zalantzarik gabe, egoera katartikoa izan zen, edo geldirik egon eta eskainitako aukera alferrik galdu, edo erreakzionatu beharra nuen. Baina, zorionez, nire izaera gogortu egin zen eta, horrela, konfiantza nahikoa eduki nuen nik neuk tiratzeko gurditik. Ez nintzen hondatu, neure buruari proposaturiko bidaia guztiak egin nituen, eta zorionez jende oso interesgarria ezagutu nuen bertan egon nintzenean.

Hala eta guztiz ere, Espainiara itzuli arte ez nintzen benetan jabetu ikasitako guztiaz. Talka oso gogorra izan zen. Jendeak zarataka egiten zuen hitz kalean eta konturatu nintzen beste pertsona batzuekiko harremanak gehienetan zakarrak zirela. Hori ere katalizatu egin nuen, "portaera oneko" tabernan zerbitzari ibiltzen nintzelako noizetik noizera, eta trebetasun hori nekez erabiltzen da. Kontrasterik handienetariko bat nire bidaia ugarien argazkiak errebelatzean ikusi nuen. Nik, koitadua, "Arratsaldeon, jauna, zerbait nahi duzu?" espero nuen. Baina errealitateak ez zeukan zerikusirik horrekin. Hiru hilabetean egunero entzundako esaldi hori zerbitzariak buruarekin egindako keinu zakar bihurtu zen (ea zer hartu nahi nuen galdetzeko erabilitako keinua). Horren hitz bakarrak hauexek izan ziren: "Bihar 6:00etan". Laburtzeko, esan behar dut esperientzia oso aberasgarria izan zela, beste kultura bat ezagutu bainuen.

Norbait oraindik ere zalantzan badabil, ez dezala bitan pentsatu. Atzerrian bizitzea norberen burua proban jartzea da, eta ezagutzen ez duzun inguru batean zeure kabuz moldatzeko gauza ote zaren ikustea.

Eskerrak eman nahi dizkiot nire ingeles irakasleari, goi mailako ikasketak egiten ari nintzenean esperientzia hau bizitzeko adorea eman zidalako, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko LHko langileei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Eta, batez ere, eskerrak bai bertan eta bai Espainian lagundu didaten pertsona guztiei. Thank you very much indeed..."

Gonzalo

III - EUROPAKO ERAKUNDEETARA EGINDAKO LEHENENGO IKASKETA BISITALDIA

Aurtengo otsailean, 29 ikaslek eta 3 irakaslek bidaia egin zuten Estrasburgo eta Brusselara, Europako Erakundeen antolaketa sistema ezagutzeko. Jarduera hori Administratiboko Zikloen "Herri Administrazioa" deritzon moduluko Unitate Didaktiko baten barruan dago.

Bidaiaren diseinua, kudeaketa eta antolaketa irakasle laguntzaileek egin zuten, Administrazio Saileko, Zuzendaritza Taldeko eta Langileriako beste irakasle batzuen lankidetzarekin; horrela, aurrekontua egon zen horretarako. Ikasleek bidaiaren kostu osoaren %50 inguru ordaindu zuten. Halaber, Pomés jaunaren (Europako parlamentarioa) gonbita ere egon zen, bestela ezinezkoa izango baitzen bidaia hori egitea.

Esperientziak Europako Parlamentuko dirulaguntza garrantzitsua lortu du, baita Nafarroako Gobernuarena ere, Institutuko, Iruñeko Udaletxeko (Hezkuntza Zerbitzua) eta Donapea Institutuko Guraso Elkarteko aurrekontuen bitartez.

Ekintza hori komunikabideetan agertu da, eta oso aberasgarria izan da ikasleentzat, hezkuntzaren eta kulturaren ikuspegitik, gainera, guztiz pozgarria izan da bertan parte hartu duten guztientzat, eta aipagarria da ikasleek bidaiako arlo guztietan izan duten jokabide bikaina.

oroa

IV NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUEKIN EGINDAKO JARDUNALDIA.

Joan den apirilaren 20an (larunbata), 10:00 eta 14:00 bitartean, Eskola Kontseiluen urteroko laugarren topaketa egin zen, honako gai hau aztertzeko: "**Familien partehartzea ikastetxeetako bizitzan**".

Programa aurreikusitakoaren arabera garatu zen: Hezkuntzako Zuzendari Nagusia den Santiago Arellano jaunak hasierako hitzaldia egin zuen; jardunaldiaren aurkezpena Nafarroako Eskola Kontseiluko Burua den Guillermo Herrero jaunak egin zuen; txosten nagusia "Partehartzea, hezkuntzaren kalitatearen faktorea" izan zen eta hori Jaume Sarramona irakasleak aurkeztu zuen (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa); gero, mahaingurua egon zen eta, bertan, honako kide hauek hartu zuten parte:

Antonio Yániz Fernández de las Heras jauna, "San José de Calasanz" ikastetxeko zuzendaria; Pedro Antona Antona, "Tierra Estella" BHIko zuzendaria; José Ignacio Labe Valenzuela jauna, CONCAPA-Navarra izenekoaren ordezkaria; Rosa Apesteguía andrea, HERRIKOA deritzonaren ordezkaria; Joaquín Del Valle Lersundi jauna, Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria.
Hezkuntzako eta Kulturako Sailburua den, Jesús Laguna jaunak amaiera eman zion jardunaldiari.

Bertara 180 pertsona joan ziren, 57 ikastetxetako ordezkariak. Gonbidatutzat, Asturiaseko nahiz Murtziako Eskola Kontseiluetako batzordeburuak joan ziren, baita Madrileko Eskola Kontseiluko ordezkari bat ere.

Ondoren, **Sarramona irakasleak** egindako hitzaldiaren ondorio guztiak laburbilduko ditugu:

Familiak ikastetxeetan parte hartzearen ondorioak:

Gaur egun, badirudi nolabaiteko atsekabea dagoela, talde konpromisoei dagokienez; baina, gure kasuan, hezkuntza komunitateko zenbait sektoreren inplikaziorik ezak eragin zuzena dauka eskolako hezkuntzan bertan.

Katalunian egindako ikerketa batean (konparazioa egin zen eskola hauteskundeetan famili ordezkarien partehartze handia izan zuten ikastetxeen eta partehartze txikiko ikastetxeen artean), ondoren adierazitako desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren:

- Formari dagokionez behintzat, ikastetxe guztien iritziz beharrezkoa da gurasoen partehartzea, bertan emandako heziketaren kalitatea hobetzeko.

- Hauteskundeetan partehartze handiko eta txikiko zentroen arteko desberdintasunek agerian jartzen dutenez, lehenengoen kasuan, familiek partehartze eraginkorragoa eta kritikoagoa dute ikastetxearen bizitzan. Horietan, gainera, guraso elkarte aktiboa, garrantzitsua eta ikastetxearekiko konpromisoduna dago.

- Partehartze handiko ikastetxeetako gurasoen partaidetza aktiboagoa da eskolan, guraso horiek pozago daude ikastetxeko alderdi garrantzitsuekin eta, gainera, gurasoen eskolaren jarduerak egitearen aldekoagoak dira.

- Partehartze handiko ikastetxeetako gurasoen eta irakasleen ustez, familiek erakundean egindako partaidetza ona da, baina zuzendariek partaidetza hori oraindik ere handiagoa izan beharko litzatekeela uste dute.

- Partehartze handiko ikastetxeetan, proposamen sakonak eta konpromiso handikoak egiten dira, familien partaidetza hobetzeko. Proposatzen den hezkuntza proiektuan, denek ere konpromiso eta lotura handia dute, zuzendaritza taldeak ahalmen handiagokoak dira (buruzagitza gaitasun handiagokoak), irakasleak irekiago daude gurasoen partaidetzara eta gurasoek, azkenik, inplikazio handiagoa dute ikastetxeko bizitzan.

- Partehartze handiko ikastetxeetan hobeto aprobetxatzen dira tutoreen eta gurasoen arteko bilerak.

- Partehartze handiko ikastetxeetan balorazio positiboa egiten da, gurasoek Eskola Kontseiluan parte hartzeari buruz. Oro har, ikastetxe publikoetan ere bai, horietan bozketak saihesteko ahalegina egin arren (erabakiak adostasunez hartzeko).

- Gehienetan, "erreguen eta galderen" atalean sartzen diren arren, partehartze handiko ikastetxeetan joera handiagoa dago Eskola Kontseiluetako bileren eguneko gaizerrendan gurasoek proposaturiko gaiak sartzeko. Partehartze handiko ikastetxeen bizitzako gairik garrantzitsuenak bilera horietan aztertzen dira; horiek, gainera, ikasturte osorako egutegian aurretiaz finkaturik daude eta deialdia nahiko aldez aurretik egiten da.

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, desberdintasun garrantzitsuak oso gutxi dira, familiek ikastetxeetan duten partaidetzari dagokionez; horrek aditzera ematen du hezkuntza garaia berez ez dela aldagai erabakigarria, gurasoek Eskola Kontseiluetako ordezkarien hauteskundeetan duten partaidetza maila desberdina azaltzeko; izan ere, antolaketa eta jarduera mailako aldagaien multzoa da, etapa horietako ikastetxeetan sortzen dena.

- Partehartze handiko ikastetxeek eta, orokorrean, ikaste publikoek gaitasun handiko taldea eskatzen dute, hezkuntza proiektua gidatzeko eta ikastetxeko partaidetzaren kultura sustatzeko.

Laburtzeko, esan daiteke, gardentasunari eta informazioari esker, familiaren eta eskolaren arteko konfiantza sortzen dela eta horrek lankidetzarako oinarriak jartzen dituela. Lankidetza hori orain arte isileko izan da, baina hori ez da baliozkoa oraingo garaietarako. Gurasoek gainditu egin

Foroa

behar dute euren same-alaben eskola antzinako eran ikusteko joera (gurasoek eurek beren eskola ikusteko zuten era); egin-eginean ere, garaiak aldatu egin dira eta eskola bera ere sakon aldatu da, bai osaketan (kulturen arteko nahastea) eta bai jarduteko moduan. Irakasleek, era beran, ezin dute atzera begira bizi: lehen eskolara pribilegiatuak bakarrik joaten ziren, inguru koherentea zen eta eskolako hezkuntza proposamenak indartzen ziren; gaur egun, irakasleek eta familiek elkarren beharrizana dute, hezkuntza proposamen egokia aurrera eramateko, proposamen horrek sarritan inguruko munduko korrontearen aurka joan beharko baitu.

Nafarroako Eskola Kontseiluekin IV Jardunaldia

Pertsonak

ELENA CHAVARRI VILCHEZ

Protagonista 16 urteko ikaslea da, **Elena Chavarri Vilchez**, Zizur Mayor herrian bizi da eta Administrazio Kudeaketako maila ertaineko zikloan dabil, Donapea institutuan.

Elenak %83ko minusbaliotasun fisikoa dauka, gehienbat bizkarrezur bifidoaren, diabetearen eta muga fisikoa eragiten dizkioten beste alderdi batzuen eraginez.

Bere eskola ibilbidea (bai Lehen Hezkuntzan, Zizurreko Ikastetxe Publikoan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, herriko Institutuan), errimoari eta aprobetxamenduari dagokionez, ikaskideen ibilbidearen antzekoa izan da, berak medikuntza tratamendu asko behar izan dituen arren.

Bere kemenari eta esfortzuari esker, muletekin erraz mol-

datzen da ikastetxean, eta harremanak ditu ikaskideekin, betiere bere izaeraren gozotasuna eta bere irribarrerik onena eskainiz; horrenbestez, ikaskide guztiak liluraturik ditu.

Kirol-tasun handiz jasaten ditu Institutuko sarrera nagusiko eskailera oso gogorrak (orain dela hogei urte egindakoak), baina egokituriko beste sarrera bat ere badauka; inoiz, berokuntzaren urritasuna ere nabaritu du, mekanografiako gelan (orain leiho-ate batzuk jarri dira).

Berak diaenez, ikasten ari den Ziklotik gehien erakartzen duten gauzak "**Herri Administrazioen moduluko aplikazio informatikoak eta komunikazioa**" dira.

Etorkizuneko ikuspegia oraingo lanean oinarritzen du eta bere burua "**idazkari eraginkor eta ondo antolatutzat**" ikusten du.

Aipagarria da igerilaria dela eta, oraintsu, hirugarren postua lortu duela (brontzezko domina), egokituriko kirolen Espainiako txapelketa absolutuan, 100 m-ko modalitate askean. Bere eguneroko prestakuntza Egokituriko Kirolen Nafarroako Federazioko entrenatzaile batek zuzentzen du; jarritako kemenaren ondorioz, emaitza ona lortu du neguko txapelketan eta gogoz prestatzen ari da udakoa, Extremaduran izango dena.

Ilusioaren, gogoaren eta esfortzuaren adibide hurbila da eta, horren bidez, minusbaliotasunak dituzten adin horretako beste pertsona batzuei adorea eman nahi diegu.

Pertsonak

EZTABAIDAKO LEHIAKETA NAZIONALA: FOROIDEA

MARCILLAKO "MARQUÉS DE VILLENA" BHI.

Marcillako Marqués de Villena BHIko taldea honako gazte hauek osatzen dute: Mikel Basarte, Héctor Durán, Jorge Esparza eta Javier Serrano. Talde horrek laugarren postua lortu zuen (9.616 euro edo 1.600.000 pta.), Madrilen martxoaren 15ean eta 16an izandako finalean.
Foroidea Caja Madrid deritzonak babestutako lehiaketa da, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako 16 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzendutakoa. Horren helburua gazteengan honako hau sustatzea da: elkarrizketaren kultura, gizarteko partaidetza arduratsua eta adostasunaren bilaketa.
Aurten planteaturiko galdera (seigarren edizioan) hauxe izan da: Enpresen irabazi ekonomikoak bateragarriak ote dira garapen ekonomiko eta sozial jasangarriarekin? Belaunaldi honen eta hurrengo belaunaldien erronka nagusia garapen ekonomikoa lortzea izango da, baina ingurua suntsitu barik eta ahulenei gehiegikeriarik egin gabe. Horretarako, elkarrizketa eta ideien nahiz iritzien trukea erabili behar da, adostasuna eta elkar-ulertzea lortzeko (Foroideak sustatzen dituen balioak).

Parte hartu duten taldeek 4 kide dituzte; 2 ikasle bozeramaileak dira (hitza hartzen dute azalpenetan eta erantzunetan), eta beste 2 laguntzaileak dira eta dokumentazioa ematen dute. Eztabaida bakoitza bi taldek egiten dute: batek "aldeko" jarrera defendatzen du eta besteak "aurkako" jarrera (hori zozketaren bidez aukeratzen da). Guztira 34 minutu dira, 4 minutuko azalpenetan, 3 minutuko erantzunetan eta beste 3 minutuko ondorioetan banatuta.

Lehiaketak hiru fase ditu: eskolakoa, probintziakoa eta autonomikoa eta nazionala. Edizio honetan, Marcillako BHIko talde irabazleak final autonomikoan hartu zuen parte, Iruñeko Planetarioan, San Cernin ikastetxearen aurka, bezperan Irabiako ikastetxeko aurkariak gainditu ondoren. Fase nazionala aurten Madrileko Senatuan izan zen, martxoaren 15an eta 16an, eta bertara autonomietako hamar finalista joan ziren (Bigarren Hezkuntzako zortzi institutu eta bi ikastetxe). Nafarroako taldeak Ciudad Realeko Nuestra Señora del Prado ikastetxearen aurkako lehenengo eztabaida irabazi zuen, egun horretako puntuaziorik onena lortuta. Hala eta guztiz ere, biharamunean galdu egin zuen, Errioxako Alborada BHIren aurka, eta horrek bigarren postua lortu zuen sailkapen nagusian. Lehenengo sariaren irabazleak Andaluziako ordezkariak izan ziren, Jaengo Tomás y Valiente BHIkoak.



FOROIDEA EZTABAIDA, Marcillako "Marqués de Villena" BHIko ikasleak

Marcillako Marqués de Villena BHIk arrakasta handiak izan ditu lehiaketa horretan. Bere ibilbide laburrean (parte hartzen duen hirugarren urtea da), bitan iritsi dira Nafarroako finalera eta 7. eta 4. postuak lortu dituzte sailkapen nazionaletan.

Gazte hauek prestatzen dituzten irakasleak Hizkuntza eta Literatura Sailekoak dira: Vicente Durán eta Antonio Unzué. Irakasleok jardueraren balorazio oso positiboa egin dute. Poz-pozik gaude, emaitzak alde batera utzita, halako gaietan interesa duten ikasleak ditugulako (errealitate hurbila gainditzen duten gaiak). Lehiaketaren antolatzaileek proposaturiko galderetako gaiak ikuspegi askotatik jorratu behar dira; horrenbestez, dokumentazio lan sakona egin behar dute; horrela, gure ikasleek hilabete asko eman dituzte liburuak kontsultatzen eta gai hauei buruzko informazio guztiak jarraitzen: globalizazioa, Porto Alegreko Gizarte Foroa, New Yorkeko Gailurra, Iparra-Hegoa harremanak, ekologia, bidezko merkataritza, etab. Informazioa bilatzeaz gain, hori aukeratu, egituratu eta ahoz azaldu behar dute, ezarritako denborari egokituta. Halaber, oso interesgarria da arrazoiak emateko, hitzaren bidez konbentzitzeko eta euren iritzi ideologikoarekin bat ez datozen posturak defendatzeko artea ikastea, azken horrek gainera bestearen lekuan jartzera behartzen baikaitu. Azken batean, seguru dakigu jarduera honek ikasleek munduari buruz duten ikuspegia aldatu duela, lagungarria izan dela gure inguruko errealitatea hobeto ezagutzeko eta, zalantzarik gabe, euren etorkizuneko bizitza baldintzatuko duela. Gazteak gaur egun ere emankorrak eta solidarioak dira, eta mundua hobetzeko konpromisoa hartu nahi dute. Laburtzeko, hiritar aktiboak nahi ditugu, eta ez motelak, azkenean soluzioa geure esku baitago. Gabriel García Márquezek zioenez: XX. mendeak ez digu ezer berezkorik emango, geuk eman behar diogu XXI. mendeari".

Pertsonak

BARAÑAIN BHIk FOROIDEA LEHIAKETA NAZIOANALEAN ARGAZKIGINTZA MODALITATEAN IZANDAKO PARTAIDETZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

99-00 ikasturtean, FOROIDEAk argazkigintzaren arloan antolaturiko lehiaketa nazional batean parte hartzeko aukera sortu zen; Ikastetxean argazkigintza aukerazko ikasgaia zen, DBHko 4. mailan (bakoitzak 20 pertsona inguru dituen hiru ikasturte daude, eta hiru laborategi ditugu, zuri eta beltzeko errebelatua egiteko); beraz, proposamena ondo sartzen zen arloko programazioan; gure ustez, lehiaketan parte hartzea pizgarria zen ikasleentzat, horrela irudi fotografiko gehiago sortzen baitzituzten. 99-00 ikasturtetik hona parte hartu dugu lehiaketa horretarako egin diren deialdi guztietan.

Zuri eta beltzeko argazkien prozesu osoa ikastetxean egiten dugu, bai pelikularen errebelatua eta bai paperaren gaineko positibatzea.

Lehiaketak hiru gai planteatzen ditu: Soziala, Kirolekoa eta Ingurumenekoa; argazkien ezaugarriei dagokienez: jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dira, gaia islatzean sormena eta irudimena bilatuko dute, ikuspegi modernotik nahiz gaurkotasun ikuspegitik egingo dira, zuri eta beltzean aurkeztu ahal izango dira (baita kolorean ere) eta 18x34 cm-ko formatua beharko dute. Ez da argazki digitalik onartzen. Epai-mahaiaren balorazio irizpideei dagokienez: 1/. Dauzkan edo iradokitzen dituen balioak: elkartasuna, hobetzeko nahia, konpromisoa... 2/. Gizarte ikuspegia, gaiari dagokionez. 3/. Konposizioa: irudimena eta sormena. 4/. Teknika. 5/. Izenburua: argazkia gaiari egokitzea.

Lehiaketak, 99-00 ikasturtean, fase autonomiko bat eta nazional bat planteatzen zuen; fase autonomikoan, aurkezturiko sei argazkiak aukeratu zituzten, eta horien egileak Javier Peláez eta David Iturmendi izan ziren; finala El Escorialen izan zen, apirilean.

2000-01 ikasturtean, argazkiak zuzen-zuzen aukeratzen ziren azken faserako; 60 argazki aukeratu eta horiek azken erakusketara igarotzen ziren, Madrileko Biltzarren Jauregian egindako erakusketara; hori apirilaren lehenengo astean izan zen eta, bertan, bidalitako hiru argazkietatik bat aukeratu zen, gizarte gaiari buruzkoa, eta horren egilea Lander Calvelhe izan zen.

Ikasturte honetan berriro ere eskaturiko hiru argazkiak bidali ditugu (Ikastetxean aurretiazko hautapena egiten da, aurkeztutako argazki guztiei dagokienez, 20 inguru), eta bi aukeratu zituzten: kirol gaikoa ("Herri Kirola", Lander Calvelheek egindakoa) eta gizarte gaikoa ("Bakardadea", Iñigo Martincorenak egindakoa). Azken horri HIRUGARREN SARIA eman zioten (601 _) eta sari hori martxoaren 16an jaso genuen, Madrileko Senatuko batzargelan.

Aipagarria da partaidetza nazionala 500 argazkitik gorakoa izan dela.

Lehiaketako alderdi garrantzitsuenetarikoa fase nazionaleko bizikidetza da; bertan, autonomietan aukeratzen diren taldeak (bai argazki lehiaketan eta bai eztabaidaren lehiaketan aukeratzen direnak) zenbait ordu daude elkarrekin, iritziak aldatzen.

Barañáin, 2002ko apirilaren 9

Sin. Irakasle arduraduna
Jesús Zalacáin.

GIZARTE GAIA

Izenburua: "BAKARDEA" Egilea: IÑIGO MARTINCORENA

KIROL GAIA



Izenburua: "HERRI KIROLA" Egilea: LANDER CALVELHE.

Gaurkotasuna

Nafarroako Eskola Kontseiluak erabaki hauek hartu ditu azken hilabeteotan:

1/2002 IRIZPENA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA ezartzen duen Foru Dekretuari buruzkoa.

Espainiako Gobernuak abenduaren 29ko 3473/2000 Errege Dekretua argitaratu du; bertan, gutxieneko irakaskuntza berriak ezartzen dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ere Curriculum berria ezarri behar du, Nafarroako Foru Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako. Hori, berriz, irizpen honetako Foru Dekretuaren zirriborroan finkaturik dago.

Eskola Kontseiluak balorazio ona egin du, dekretu honek aurrekoari dagokionez jasotzen dituen aldaketa nagusiei buruz:

a) Ikasleak lurralde nazional osotik errazago ibiltzeko eta titulua baliozkoa izateko, LOGSEk ezarritakoaren arabera, helburuak eta edukiak ikasturte bakoitzerako zehaztu dira, eta ez etapa osorako, orain arte bezala.

b) Gutxieneko irakaskuntza berria finkatzeko erabili den espiritua errespetatuz, Foru Dekretuaren zirriborroak indartu egin ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tresna-arloen edukiak, batez ere Matematikan eta Erdal Hizkuntzan. Arlo horietako edukiak ezinbestekoak dira, ezagueraren barruko beste arlo batzuen ikaskuntza berme handiarekin egiteko. Bestalde, Nafarroan bi arlo horien ordu kopurua gainontzeko autonomia erkidegorik gehienena baino handiagoa izan da.

c) Zientzien irakaskuntza ere berriro egituratu da, hori errealitate teknologiko eta zientifiko berrietara egokitzeko. Teknologiaren curriculumean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko eduki berriak sartu dira; gainera, arlo guztietan, ikaskuntzaren funtsezko tresnatzat sartu dira.

d) Historiari dagokionez, bilakaera eta oroimen historikoaren kontzeptua errazago ulertzeko, metodologia diakronikoa sartu da. Halaber, ikasleek Espainiako faktore kultural anitzak baloratzeko, ikuspegi orokorra indartu da eta Espainiako historiako gertaera nagusiak lotu dira.

e) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek irakurmen mailako ulermen egokia edukitzeko, Nafarroako curriculumean irakurmen ulerkorrari buruzko etengabeko aipamenak egiten dira, faktore hori erabakigarria baita, edozein ikasketa egiteko gaitasuna garatzeko. Irakurmena sustatzeko oharrak sartu dira (irakurtzea ikaskuntzaren oinarrizko tresna baita), curriculumeko arlo guztietako helburu, eduki eta ebaluazio irizpide guztietan.

2/2002 IRIZPENA, BATXILERGOKO CURRICULUMA ezartzen duen Foru Dekretuari buruz.

Espainiako Gobernuak abenduaren 29ko 3473/2000 Errege Dekretua argitaratu du; bertan, gutxieneko irakaskuntza berriak ezartzen dira, Batxilergorako. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ere Curriculum berria ezarri behar du, Nafarroako Foru Erkidegoko Batxilergorako. Hori, berriz, irizpen honetako Foru Dekretuaren zirriborroan finkaturik dago.

Eskola Kontseiluak balorazio ona egin du, dekretu honek aurrekoari dagokionez jasotzen dituen aldaketa nagusiei buruz:

a) Humanitateen arloan, Filosofiaren curriculuma zabaldu egin da, eta Filosofia Batxilergoko bi ikasturteetako ikasgai komuna da. Grekoa II eta Musikaren Historia, berriz, Humanitateen eta Gizarte Zientzien modalitateko arloak izango dira. Historiari dagokionez, bilakaera kontzeptua errazago ulertzeko, eta ikasleek Espainiako kultura anitzeko faktoreak baloratzeko, ikuspegi orokorra indartu eta lotu egin dira Espainiako historiako gertaera nagusiak.

b) Zientzien arloan, Marrazketa Teknikoaren ikerketa zabaldu da, Marrazketa Teknikoa II sartuta, Arteen, Natur nahiz Osasun Zientzien eta Teknologiaren modalitateen barruko ikasgaitzat.

3/2002 irizpena, NAFARROAKO IKASTETXE PRIBATU-KONTZERTATUETAKO JARDUERA OSAGARRIAK NAHIZ ESKOLATIK KANPOKOAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK arautuko dituen Foru Dekretuaren zirriborroari buruzkoa.

1) Administrazioaren helburu nagusia gai hau orokorrean argitzea da, batik bat halako jardueretako kuoten kobrantzari dagokionez, hori LOPEGCEk (1995) onartzen baitu, baina gerta daiteke ezarritakora ez egokitzea. Foru Dekretu honen helburua, hain zuzen ere, tresna argia eta zehatza edukitzea da, Foru Erkidegoko arduradun guztiek halako jarduerak eta zerbitzuak arautzen dituzten lege guztiak ezagutzeko.
Gure ustez, zentzuzkoa da Administrazioak ahalegina egitea, jarduera horiek guztiak hezkuntzari lotuta egon daitezen, eta curriculumaren ohiko garapenean nahasterik sor ez dezaten; halaber, horien finantziaziorako arauak betetzeko ere eskatu behar da (FDaren zirriborroa; 2.2 eta 4.5 artikuluak). Horretarako, Eskola Jardueren eta Zerbitzuen Erregistroa sortu da eta horren kudeaketa, berriz, Ikuskapen Teknikoak eta Zerbitzuen Ikuskapenak egingo du (proposaturiko FDko 9. artikulua).
Txostena, horrenbestez, ados dago Foru Dekretuko proiektu honen eduki orokorrarekin.

2) Hala eta guztiz ere, jarduera hauek ikuspegi pedagogikotik eta antolaketa mailakotik begiratuta, Foru Dekretu horren edukiaren barruko alderdi batzuk aipatu nahi ditugu:

2.1. Gure iritziz, jarduera horiek ikastetxeek sustatzen dituzte, LOGSEko 2.2 f) nahiz 57.4 artikuluek eta LOPEGCEko 7. (baliabide ekonomikoen kudeaketaren autonomia) zein 11 h) (jarduera osagarrien onespena) artikuluek ematen dieten autonomia erabiliz. Halaber,

Gaurkotasuna

FDko zirriborroko 2.1 artikuluak ikastetxeei halako jarduerak ezartzeko autonomia ematen die.
Horrenbestez, izan daiteke ikastetxearen beraren eskumenekoa izatea jarduera osagarrien sustapena, antolakuntza eta onespena, curriculumean duten garrantzia kontuan hartuta; horiek Ikastetxeko Eskola Kontseiluak onetsi beharko ditu, titularrak eskatuta, eskolatik kanpoko jardueren kasuan gertatzen den bezala. Horrek ez du esan nahi Administrazioak harturiko erabakiak jakinarazi behar ez direnik (jakinarazteko eta behin betiko baimenerako).
Administrazioak hori ezinezkoa dela edo ez dela komenigarria badio, txosten honetan behintzat baimeneko administrazio prozesua ahalik eta gehien arintzeak duen garrantzia azpimarratzen da; izan ere, bestela, kalte egin ahal zaio irakasleek horiek diseinatzean eta egitean jarritako motibazioari eta esfortzuari.

2.2. Gure iritzian, halako jarduerak (osagarriak eta eskolatik kanpokoak) funtsezkoak dira ikasleen heziketan. Aipagarria da jarduera osagarrien garrantzia; halako jarduerak ikaskuntza indartzeko diseinatzen eta egiten dira, edo ikaskuntza horretan sakontzeko, curriculumeko lana "osatzen" duten jardueren bidez, eta beraz, jarduera horiek curriculumaren barrukoak dira. Ikastetxeko programazio orokorraren barruan daude. Horien programazioa, beste alde batetik, Ikastetxeko Eskola Kontseiluak ezarritako jarraibideen arabera egiten da, eta jarduerak ikasleak ikastetxean bertan egoteko orduen barruan egiten dira. Irakasleen ekimenez sortzen dira, Ikastetxeko Ikasketa Proiektuan oinarrituz; izan ere, horren helburua ikasleen heziketa hobetzea eta hezkuntza kalitate handiagoa lortzea da.
Jarduera horiek ikasle batzuen ekimena eta sortzeko nahiz ikasteko gogoa eragiten dute; gainera, gizarte heldutasunaren gaitasunak lortzeko laguntza ematen dute: kritika positiboa egiteko gaitasuna, elkartasuna, errespetua, talde lana eta bizikidetza ohitura onak, besteak beste. Horiexek dira jardueron ezaugarriak; beraz:

a) Aukerazkoak ala derrigorrezkoak izatea planteatu da. Indarreko legeriaren arabera, aukerazko izate hori FDko 3.1 artikuluko sarrerako 2. paragrafoan jasotzen da, baita FDko zirriborroko Hirugarren Xedapen Gehigarrian ere.
Beste alde batetik, FDko zirriborroan esaten denez, jarduera osagarriak oso garrantzitsuak dira; izan ere, bertako 4.1 artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, "horietan parte hartzen ez dutenek behar bezalako eta doako hezkuntza dutela bermatu beharko da, eta kasuan kasuko jarduera osagarriaren edukiekin parekatzeko moduko edukiak sartuko zaizkie curriculumean".

Agian errazena ikasle guztiek jarduera horietan parte hartzea izango litzateke, parte hartzen ez dutenei jarduera horiek dutenaren "antzeko" edukia emateko eskakizuna egiten baita. Jardueron helburua heziketa mailakoa bada, eta programazio orokorraren barruan egonez gero, ikasle guztiek parte hartu beharko lukete horietan, baldin eta familien iritziz jarduerok arrisku fisikoren bat (esate baterako, garraioa) edo ordaindu nahi ez duten kosturen bat ez badute. Nolanahi ere, ikastetxeak jarduera osagarrien heziketak duen balio handia azaldu beharko die familiei.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren web orrian konsulta daiteke osorik:
www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK 2002ko MARTXOAREN 12an HARTURIKO ERABAKIA, NAFARROAN HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN ALDEKO SARIAK ETA ONARPENAK EZARTZEARI BURUZ:

"Zenbait Autonomia Erkidegok sariak eta onarpenak emateko sistemak eta deialdiak maila administratiboan ezarrita eta araututa dituzte, eskoletan lan egiten duten pertsonen eta erakundeen hezkuntza lana saritzeko.

Nafarroako Foru Erkidegoko gizarte bizitzako beste arlo askotan sari eta onarpen ugari egiten da, esate baterako, kirolean, kulturan, lanean, merkataritzan, industrian, kalitatean, etab.; horrenbestez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailari sariak sortzeko eta emateko eskabidea egingo diogu, pertsona, erakunde, instituzio eta talde publiko nahiz pribatuek egindako lanen eta esfortzuen onarpen publikorako. Horrela, irakaskuntzaren balioa, hori hobetzeko beharrizana eta irakasleen eginkizunaren gizarte onespena sustatuko dira, horren arlo guztietan."

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUKO OSOKO BILKURAK 2002ko MARTXOAREN 12an HARTURIKO ERABAKIA, ESKOLAKO ISTRIPUEN PREBENTZIOARI BURUZ:

"Nafarroako Eskola Kontseiluak eskabidea egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailari, ikerketa bat egin dezan, Foru Erkidegoko ikastetxeetan ikasleek, irakasleek eta PASek izaten dituzten edo izan ditzaketen istripuei buruz; horrenbestez, bidezko aginduak eman beharko dituzte horietan "Istripuen Prebentziorako Plana" egiteko, enpresa eta erakunde askotan ere halako plana baitute."

ABIATURIKO IRIZPENAK:

4/2002 irizpena, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako "SAN FRANCISCO" ikastetxe publikoa Mayor 57 kaleko "Teresianas edo Ezpeleta Jauregia" deritzon eraikinera eramateari buruz.

5/2002 IRIZPENA, behin-behinean "LORENZO GOIKOA II" izena edukiko duen HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOA SORTZEKO Foru Dekretuari buruz.

6/2002 IRIZPENA, "Tuterako ETI" berriro antolatzeko Foru Dekretuari buruz.

7/2002 IRIZPENA, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Presondegietako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoaren arteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko Presondegiko hezkuntzari buruzkoa.

11.zk
2002

Editoriala

HEZITZAILEAK XXI. MENDEKO GIZARTEAN

Editorial honetan, Nafarroako Eskola Kontseiluak Autonomietako eta Estatuko Eskola Kontseiluetako XIII. Topaketa Nazionaletan aurkezturiko txosteneko 3. zatiaren laburpena egin dugu; topaketa horiek Oviedon izango dira, 2002ko maiatzean.

Txostenaren testu osoa Eskola Kontseilu honetako web orrian ikus daiteke:
www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra.

Nafarroako Eskola Kontseiluak hezitzaileen hasierako heziketari eta heziketa jarraituari buruz egindako hobekuntza proposamenak.

a) Etorkizuneko irakasleen hasierako eta unibertsitateko heziketaren berrikuspen sakona egitea, errealitatearekiko egokitzapenik eza jasanezina bihurtuko delakoan.
Horri dagokionez, ekimen guztiz bideragarritzat, unibertsitateko ikasketa planetan (irakaskuntzan jardun nahi duten irakasleen eta lizentziatuen nahiz injineruen ikasketa planetan) honako alderdi hauek jasotzeko eskabidea egin nahi dugu:
• Hezi nahi den irakaslearen profila, helburuak eta xedeak.
• Arlo didaktikoak eta psikopedagogikoak.

b) Irakaskuntzan jardun nahi duten irakasleen eta lizentziatuen edo injineruen ikasketa planak aldatzea; horrela, aukerazko ikasgaiak nahiz egituratze askekoak erabiliz, horiek guztiek beharrezko gaitasuna lortuko dute, irakaskuntzaren derrigorrezko mailetan gutxienez bi ikasgai emateko; horrek ikasle talde jakinarekin diharduen irakasle taldea murrizteko eta hezkuntza sistema hobetzen laguntzeko aukera emango du. Horrenbestez, Hezkuntza Administrazioei eskabidea egin nahi diegu, irakasleentzat ateratzen diren lanpostu berrietan ezaugarri hori kontuan har dezaten, eta erakunde pribatuei ere eskabidea egin nahi diegu, irakasleak kontratatzean profil hori aintzat har dezaten.
Bost urtetan, gutxienez, unibertsitate osteko ikasturteak eman behar dira, antzinako titulatuentzat edo aldarteko langileentzat, baldin eta gaitasun bikoitz hori ez badute, gaitasuna zentzuzko epean lor dezaten.
Testuinguru horretan, Irakasle Eskolako oraingo diplomatuak lizentziaturara igarotzea justifikatuko da.

c) Aurreko proposamenarekin batera, irakasleen heziketako ikerketa pedagogikoan ere beharrezko lankidetza eman behar da, ikastetxeetan, unibertsitateetan eta hezkuntza administrazioetan; horrela, ikerketa planak eta edukiak gaurkotuta eta egokituta egongo dira, hezkuntza sistemaren egiturari eta beharrizanei dagokienez.

d) Irakasleen heziketa iraunkorrari buruzko eztabaida egitea, autonomia erkidego guztietan; bertan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa koordinatzailea izan eta egon daitezkeen erantzun guztien bitartekaritza egin dezake.
Heziketa iraunkorraren eskaintza egin behar da, ikuspegi orokorretik; horrek erantzuna eman beharko die irakaskuntzaren ohiko jarduera oztopatzen duten arazo orokor guztiei:
• Eduki eta alderdi pedagogikoen ezagupena hobetzen duen gaurkotze zientifikoa eta didaktikoa.
• Ikasgelako bizikidetza arazoak saihesteko, inmigranteen arretarako, elbarrien integraziorako eta abarrerako eskuhartze estrategiak.
• Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena.
• Hizkuntzen hobekuntza, batez ere adituentzat.
• Ikastetxeen antolaketaren eta kudeaketaren ezaguera, horien ibilera egokirako.
• Talde laneko, partaidetzako, eztabaiden zuzendaritzako eta abarreko heziketa teknikak.
• Tutoretzako estrategiak eta teknikak.

e) Ikastetxeetako heziketa garatzea, banakako heziketa baztertu barik.

Nafarroako eskola Kontseilua Aldizkari Berri-Emailea
eskolaurra